




Atzoko eta gaurko musikaren irakurketa aberatsa Hala Bedin

80KO HAMARKADAN militar, elizgizon eta *arriba-español*ak marka zuen Gasteiz hartan kale-agerraldi ateoak egiten hasi ziren, eta polemika handia piztu zuten. “Gaizki ikusitako” jende multzo hartatik batzuk kontrainformazioaren aldeko hautua egin zuten, hala sortu zen *Resiste!* fanzine aitzindaria, eta Hala Bedi irrati librea ere orduan jarri zuten martxan. Berehala batu zitzaizkien bide lerro antzekoan zebiltzan punk eta rock elementu erradikalenak eta elkar elikatzen hasi ziren: taldeek irratiko mikrofono eta uhinak zabalik zituzten; eta musikari horiek Hala Bedi moduko ekimenak babesten saiatzen ziren. Horra hor, esaterako, 1987an Gasteizko irratia alde Vomito, Kortatu, La Polla Records eta Quemando Ruedas taldeek egindako kontzertua. Ez zen bakarra izan, baina garrantzia hartu du, irratia berak zuzenekoan oinarritutako maketa argitaratuko zuelako orain 10 urte, eta CD formatuan ere eskuragarri jarri zuen.

Rockak, kale-musikak beti izan du leku pribilegiatua, merezitakoa, Hala Bediko uhinetan. Bai irratia espezializatueta (Pesadilla del Punk Rock, Hiru Kortxea...) zein programazio orokorrean. Belaunaldi belaunaldi, eraso guztiei aurre egin eta hazi egin da Hala Bedi; eta hainbat belaunaldi batu ditu bere baitan. Horren adibide dira 30. urteurrenerako prestatutako disko-bilduman aurki ditzakegun protagonistak eta horiek aukeratutako kanta gogoangarriak.

Johnny & Josephek Kortaturen ‘Kolpez kolpe’ri ukitu hillbillyagoa eman diote, hitz berriak sortuz eta Hala Bediren urteurreneko kanta bilakatu. Iraganen Euskal Herriko rhythm&bluesaren errege izan zen The Allnighters berriki berpiztu da eta

Hala Bedi. 30 urte kolpez kolpe
Askoren artean

Bonberenea Ekintzak, 2013

Eskorbutoren ‘Cuidado’-ri arrisku-puntua kendu eta groove-a gehitu dio, dantzagarri bihurtuz. Berako Sixty Sexers taldea Euskal Herriko rock-and-rollaren aita den Niko Etxart omendu du merezimendu osoz, ‘Zkrax’ kantaren bidez. Sakanako Hesian taldeak 90eko hamarkadako ‘Amets bat’ hit-a –Alaitz eta Maiderrera– gaurkotu du, erritmoa gehituz. Anai-Arrebak disco taldeak M-ak taldearen ‘Barkatu Ama’ klasikoa ekarri du gazteagoen belarrietara. Indarrap-ek Gozategiren ‘Pakia Beyau’ erabat eraldatu du hip-hopera eramanda. Garik aspaldiko bidelagun RIP omendu du ‘Mundo muerto’-ren gordintasuna biluztasunetik landuta. Eskerrak Betagarrikerreskatatu duen Hala Bedi eta Gasteizko idiosinkrasiaren eredu parekazina den ‘Rula’, Potatorena. Ortophonek soul bihurtu du La Polla Recordsen ‘Tú alucinas’. Izaki Gardenak-ek intentsitatea eman dio Ruper Ordorikaren ‘Ene begiek’ ederrari. Neubat taldeak Negu Gorriak-en ‘Zipaioen matxinada’ pisutsuago bihurtu du. Bronzek punch berezia, rockeroagoa, ezarri dio Itoizen ‘Hegal egiten’ hunkigarriari. Sumision City Blues taldeak blues-rock irakurketa egin dio Zuloak proiektuaren ‘Artzai Ona’-ri. Willis Drummond taldeak ‘Pakean utzi arte’ gaurkotu du. Eta, azkenik, Bap!-en ‘Plastikozko janariak’ kutsu orkestral amorratuz jantzi du Xabier Montoiak. ■

Iker Barandiaran

